

HIRU IZENBURU ZITUEN POESIA-LIBURUA

Xabier Galarreta



© Xabier Galarreta

© Marjinalia Bilduma

Oharra: Poema bat amaitu eta beste bat hasten denean, “&&&” ikurra topatuko duzue beti. Hortaz, poemak bereizteko, aipatu ikurra azaltzen da liburu osoan.

1,60 €..

Idatziko dudanaren prezioa.

Bat eta hirurogei.

Lorerik ez. Artzainik ez. Izadi loriosorik ez.

Prezioa aldez aurretik jarrita daukan poemategi bat.

Inora (?) ez naraman bidaia-txartel batena.

Hemen. Nire furgonetaren barruan.

Arruntkeria hesitu nahirik.

Izatea beti gorrotatu dudan gauza horren aurka borrokatuz.

Arruntenetan arruntena, Ni.

Hori, eta oroitzapen (nostalgiko) pilatxo eder bat,

galde eginez nire buruari NOLAKOAK

izango ote diren “etorkizuneko oroitzapenak”,

mistizismoan jausi gabe; jausi, agian, absurdoan,

baina mistikan (erlijioan), hori inoiz ez, INOIZ EZ!

Higuina diet santu-jaleei.

Pertsona ausartak nahiago nik,

taldeka zein bakarka bizitzen dakitenak,

baina jainko ahalguztidunik gabe,

zientziak zabaltzen digun bidea soilik

–eta bide hori ere mitifikatu gabe: Txernobil!–.

&&&

Heriotza... nola liluratzen gaituen...

&&&

“Kopeck bat hire pentsamendu baten truke”,

esan zidan, erdi-serio erdi-barrez.

Nik, vozka botila hutsari penaz begiratu,

so lelotu batez jaso nuen burua, haren alderantz,

eta hitz ulertezin batzuk ahoskatzea

besterik ez nuen lortu.

&&&

Bizitza, traizio bat da.

&&&

Eta atzo izan zela dirudi!

“Gaur bederatzi urte dira,
aita hil zenetik;
beraz, hamalau edo hamabost urte
[joanak dira]
amaren heriotzatik.
Eta, atzo izan zela dirudi!”
Gizakia gizaki denetik,
mila bider entzun ditugun
[esaldiak ditugu horiek],
gizakiak gizaki izaten jarraitzen duen arte
entzun egingo ditugunak.
Funtsezkoenak bere horretan dirau, beti.

&&&

Gaur Jontxu hil da (II)

Gizabanako bakoitzak du
[bere historia],
armiarma itzel baten itxura
[hartzen duen
historia bat]
Bere mapa propioekin...
Gizateriarentzako hil edo biziko
[datarik ez]
[transzendentziarik ez]
Historia bat baino ez
Norberaren historia
Giza talde batena edota batzuen,
bere mapa propioekin...
Eta gertaeren ordez,
oroitzapen ttiki batzuk,
ikur ausarten gisa jarriak,
ulertezinak (ez dakienarentzat)
baina esanguraz josita,
(badakiten haiantzat).
Joana haiz, Jontxu, eta heurekin eraman dituk
mapa guztiak, historia hura ulertzeko
ezinbestekoak genituen gako guztiak!

&&&

Egun bat etorriko da
mundutik esku-hutsik, erabat biluzik,
botako gaituena;
egun bat etorriko da
maite genituen gauza guztiak aienatuko dituen,
hareazko erlojua harearik gabe

[utziko duena];
egun bat etorriko da
argiari iluna gaindituko zaiona,
eta besterik ez;
egun bat etorriko da
itxaropenerako bide oro giltzarrapo ikaragarritz etenda
[utziko duena].
Bai, egun hori etorriko da,
etorri ere...

&&&

Egotea egoteagatik,
ba ote (dago) zorion perfektuagorik?

&&&

Batzuetan,
jartzen haiz bizitzaren aurrean
eta esaten diok heure buruari:
“Bi laurdenak bizi dizkiat,
azken laurdena falta zaidak”.
Eta orduan,
sekulako gogoia etortzen zaik
heure bizitzako uhalei berriz ere heltzeko.
Nahiz eta horrek berekin ekarri
mundu guztia
pikotara bidaltzea.

&&&

Nolako hazkurea
bizitzak eragiten diguna. Ezetz?
–Bai horixe...

&&&

Berrero, negura itzuliko gara.
Berrero, geure barrura itzuliko gara.
Berrero, gauzen barnealdera begiratuko dugu.
Berrero, geure azala babestuko dugu hotzetik.
Berrero, atea poliki itxi eta
[etxe barruan geratuko gara,
geure baitan goxo-goxo].
Azken finean, ez ginen inora joanak
(udako sentrazioak baino ez ziren izan).

&&&

Agian, egunen batean,

itzuli egingo gara.
–Nora? *Lou-Punteau-ra*?
Bai, isiltasunera...

&&&

Sekula ez haiz itzuliko

Hasiak gara elkarri adio esaten.
Zahartuxeak ere bagaude.
Nostalgia pilatzen hasi zaigu
eta begietan maiz arrazoirik gabe
negar-malkoak sumatzen ditugu.
Bizitza jada ez da horren luzea...
metro koadro gutxiko etxetto batean
bizi gara orain, gure bi seme-alaba helduekin, lau guztira, lau...

&&&

Batzuek “haikuak” idazten dituzte,
baina kaikuarena egiten
bukatzen dute maiz.
Onar dezagun: garai bateko arnasa
joana da betiko.

&&&

Fukushima, Chernobyl...
natura gero eta hurbilago dabil
bere jomugatik.

&&&

Poematxoak idaztea,
esakune gutxi gorabehera zorrotzak sortzea,
arrantzan aritzea bezalakoa da,
neurri handi batean:
itxoiten jakin behar,
eta bitartean
itxaronaldiaz gozatu.
Finean, denbora-pasa kontua da...

&&&

Ez naiz inoiz iraungiko,
ez naiz inoiz mutu geratuko,
ez naiz inoiz hitzik gabea izango,
ez naiz inoiz hutsik geldituko...
Labur esanda: ez naiz inoiz hilko!
Yu-hu-uuuuu!!!

(and a botle of rum...)

&&&

Autobus-geltoki batean nago, zain.
Ez dakit zein geltoki den.
Beitu, badator autobusa.
Zer arraro, atzetik igo behar izan dut.
Ordain-lekurik ez dago,
baina ezin izango nuke ordaindu:
ez dut dirurik.
Jendea oso isilik dago, oso zurbil.
Argitxo bat piztu da hutsik dagoen
eserleku bat seinalatuz,
eta berehala ulertu dut:
hori da nire eserlekua.
Ezin dut txoferra ikusi
baina badakit nor den.
Karonte ere modernizatu egin da.
“Goazemak” pentsatu dut
begiak itxita.

&&&

Politikaria hitz egiten hasi zen.
Hasieran, denok geunden serio-serio,
baina gehiegizko seriotasun batez...
Gero, norbaiti barretxo bat
eskapatu zitzaion.
Handik gutxira,
giroa erabat deskonposatzen
hasi zen.
Barretxoak gero eta zabalagoak,
gero eta lotsagabeagoak ziren.
Eta halako batean,
denok ginen barrez lehertzen,
begietatik malkoak zerizkigula,
leher-leher eginda –literalki– barrez.

Eta azkenean,
politikariak berak egin zuen bat
gure barre-algarekin.
Eta politika utzi
eta gutako bat gehiago izan zen.
Orduz geroztik,
hortxe dabil gauza bera beti oihuka:
gora gu eta gutarrak!!!

&&&

Gizon bat dabil
geriatriko inguruan
osteratxo txikiak egiten.
Den-dena ahaztu zaio,
bera nor zen ere ahaztu zaio.
Ez du iraganaldirik,
presenterako bizi da.
Iraganaldirik gabeko gizakumea,
txorimalo hutsa...
Horra, Historia
(letra larriz idazten dena)
zeinen garrantzitsua den!

&&&

Ausarta izan behar,
“egia berdaderoari” heltzeko.
Ni ez naiz horren ausarta...
Baina orain dela urte asko,
orain dela urte pila,
auzoko gehienen erdeinua
ondo irabazita
neukanean
–ez orain bezala, txit errespetagarria naiz-eta–
nahiko aursarta izan nintzela,
uste dut.

&&&

Amorruzko leherketa batzuk
gutziz deliziosuak dira.
Den-dena gerta daiteke
horrelakoetan.
Baita giza erailketak ere.
Zer arraio! Zer demontre!
“Baita giza erailketak ere” ez,
“Batez ere, giza erailketak” baizik.
Gainerako guztia, pasadizo huts.

&&&

Niretzat, bizitza ez da amets bat.
Niretzat, bizitza zientoka, milaka, milioika amets dira.
Eсна egiten dut amets.
Begiratzen dizudanean
(begiratzen dizudala uste duzunean)
ametsetan nago,
amets bati begira nago,
amets-sekuentzia amaigabe bati begira.
Nik ez dut bizitzari buruz ulertzen,

nik ametsei buruz ulertzen dut.

&&&

Ez ditut gogoko gerra zibilari buruzko
filmak eta istorioak,

badakit-eta nola bukatzen diren.

Eta ni, beti, galtzaileen ondoan

izan naiz.

Ni gerra hura galdu zuten haietako bat

izan naiz,

beti.

Inori ez zaio gustatzen bere porrotak inork gogoraraztea,

ezta?.

Bada, hori.

&&&

“Campanades a Morts” Lluís Llach;

Mikel Laboaren “Gernika”;

“Te recuerdo Amanda”, Víctor Jara;

Quilapayun (“Santa Maria de Iquique”).

Nola doan denbora igaroz...

hain ixilik, hain oharkabean,

hain erremediorik gabe...

Binilozko garai haiek,

orratz txiki, ia ikusezin batek goldatuak...

&&&

Eup, herrikideok!

Izan gaitezen anglosaxoiak!

Izan gaitezen ingelesak!

Jar dezagun gure herria

Britainia Handiko

erreginaren menpean!

Izan gaitezen britainiar!

Eta horren truke, zaindu gaitzatela

gure etsai naturalengandik!

Zerbitzatuko dugu Ingalaterra!

Txikitan ingelesez bizitzen

ikasiko dugu!

Trukean, baldintza bakarra:

lagundu iezaguzue benetan

geure euskara maitea

aurrera ateratzen!

zaindu eta ohoratu gure kultur txikia,

zuekin handi izan gaitezen,

Ipar Euskal Herriko gure anai-arrebekin batera!

Zuek ardura zaitetzte gure ongizate

politiko, ekonomiko eta sozialaz,
utzi guri bakarrik geure kultura bereziaz arduratzen,
ingeles nazioaren barruan beti.
Ingelesok, Euskal Herria jartzen dugu
zuen oinetan, hortik aurrera bidea
elkarrekin egin dezagun!
Gutaz harro sentituko zarete
eta gu zuetaz ere bai,
denborak berdinduko gaitu
nork bere kultur berezitasunekin,
baina kultur desberdintasunean anai!
Eup, ingelesok,
Gibraltar berri bat eskaintzen dizuegu,
hementxe, Pirinioetako alde honetan!
Eup, herrikideok!!!

&&&

Geure seme-alabak ikusten ditugu
nola tronpatzen diren
gu tronpatu ginen bezalatsu.
Eta... zelako plazera ematen digun
[horrek!]
Eta... zelako atsekabea ematen digun
[horrek]

&&&

Jakituria handia behar da
harri berean hiru bider ez
baina gehiagotan estropezu egin
eta beti minik bat ere
hartu gabe
(edo min handia hartuta)
altxatzeko.

&&&

Dena den, onartu beharra dago:
ez kulturek ez aberastasunek
ez hizkuntzek ez politikek
ez garamatzate inora.
Tximino geratu izan bagina,
berdin-berdin izango zatekeen.

&&&

“Baina, orduan, zein da bizitzaren zentzua?”

1.- Ez dago

- 2.- Jakinezina da
- 3.- Erlijioan bilatu behar da
- 4.- Teknologian eta progresoan bilatu behar da

...

Nik, apaltasunez esatera, lehena nahiago nuke; edo besteren ezean, bigarrena. Premiatuz gero, laugarrena. Eta hirugarrenari dagokionez, ez, hori ez. Inolaz ere ez. Mila esker (badakigu zer gertatzen den gizakiak “jainko-bozeramaile” bihurtzen direnean).

&&&

Naturarekin daukagun harremana
maitasunezko/gorrotozko harreman-mota
horretakoa da.
Baina azken bataila,
guk daukagu galduta.
Hori horrela da, eta kito.

&&&

Desordena, anabasa ditut gogoko;
eta batez ere,
hortik sortzen den ordena.
Azken finean, zeren isla gara gu,
baizik unibertsoarena...?

&&&

Gaztetxo batzuen pare,
horra nola iraun behar dugun,
beti,
baita laurogei urterekin ere.

&&&

Bizitza kapritxo bat da.
Hortaz, nola ez gara kapritxosoak izango, ba?

&&&

Inspiraziorik gabeko mundua,
hilerri abandonatua.

&&&

Gu, gizakiok, beti
haratago begiratzen,
benetan ikusten dugunaz
haratago,
askoz haratago...

&&&

Bizitzan ugari dira eman
ditugun besarkadak,
baina are ugariagoak
eman gabe
utzi genituenak.

&&&

Euskaldunoi buruz esaten da
geure sentimenduak espresatzea ez dugula gogoko,
horren beldur garela edo;
baina, ba ote dago gizakirik munduan
bere sentimenduak espresatzeaz beldur
ez denik?

&&&

Zenbat daukagun esateko!
Baina, zer zaila den
abagunea topatzea!
Lehenik, isiltasunari egin
behar zaio lekua.
Eta isiltasun horren ostean,
trumoi antzeko bat entzuten hasiko zara,
itsasotik –urrun– ekaitza badatorrenean bezala...
Orduan ohartu egiten zara
zenbat zenuen esateko.

&&&

Historiak
ihes egiten digu
eta aldi berean
bertan egoteko
esaten digu.

&&&

Bikotasunak...
Inork ez daki oso ondo
zer diren.
Baina, hortxe daude.
Bikotasunak elkarren etsai izan daitezke,
edo elkarren osagarri ere bai.
Puntu beretik abiatuiko bi pentsamendu,
zeinak, bere “helbururantz” abiatuak,
elkarrengandik gero eta urrunagotzen diren,

baina zeinen eliptikak ekarriko dituen
abiapuntu berera,
bidaiak noraino bestelakotu dituen
soilik egiaztatzeko balitz ere.
Horra (beste) bi bikotasun,
misteriotsu, arrotz, alderrai,
gizatasunez blai.

&&&

Orain,
modan dago hitz-ekonomia.
Krisiarengatik izango da,
noski...

&&&

“Hitzik gutxienekin,
ahalik gehien esan” kluba
ere modan da.
Baina, nik,
neure piraguarekin
ibaia ezagutzea,
nahiago.

&&&

Zertarako irakurri,
pilatuz joan zaiguna
aurrera egin ahala botatzeko ez bada...?

&&&

Botila leher daiteke,
presioa altuegia denean.
Konponbideak:

- 1.- Osorik ez bete
- 2.- Egin zulo txo bat
- 3.- Bete, hustu eta bete berriro
- 4.- Ur-iturria tapatu

Nik, aukeran, hirugarrena nahiago.

&&&

Euskal politikari batzuek
goi mailako euskal erakundeak
euskaltegiko mintza-praktikako
saio baldar
bihurtzen dituzte.

Horretaz ere gogoeta egin beharko litzateke.
(Ez dakit hau poema bat ote den).

&&&

Ai, zenbat denbora igaro den...
51 uda!
Ez dira hainbeste, halere...

&&&

Ez du merezi
besteei buruz hitz egitea.
Gainera, hain gaitezke
maltzurak izan...

&&&

Kritikaz ez genuke
nehoiz baliatu beharko.
“Assumption” bidea da
benetako aukera,
holaxe,
makurkeriarik gabe...

&&&

Adio esaten
jakin beharra dago.
Une jakin batean.
Eta, batez ere,
heriotza baten ostean.
Natura den bezala onartzea.

&&&

Agur, Jontxu maitea
bazoaz betiko
gogoratuko gara
zutaz orain-gero,
bihotzean utzita
zulo ez-nolanahiko
berau tapatzen-eta
badugu lan franko!

&&&

“Hamasei urteko alaba bat
daukat”.
esaten zidan auzoko batek

lehengo egunean,
“eta, antza denez, gaueko
parrandetan,
alkoholez bustitako festetan
eta rock radikalean
aurkitu nahi ditu erantzunak”.
“Zaharrak berri, lagun”
erantzun nion nik,
“Zaharrak berri”.

&&&

Sortzailea ez da soilik “sortzailea eta bere obra”. Hori baino askoz gehiago da. Da: sortzailea eta bere gizartea, sortzailea eta bere hizkuntza, sortzailea eta bere kultura, sortzailea eta bere errealitate sozial eta indibiduala, e.a., e.a. Horregatik obra bat beti izango da obra bat, eta sortzaile bat beti izango da bere gizartearen eta bere garaiaren arima (bere obran) islatzeko gai izan den langile fina.

&&&

“Egun bakoitza opari bat duk, Xabier.
Ez al duk ulertzen?”, imajinatu dut
Jontxuk esaten zidala.

&&&

Bat-batean, zure bizitzako hainbat
garai
erabat bukatuta daudela
ohartzen zara.
Hasia zara zutaz
kontzientzia hartzen.
Beranduegi da, ordea:
zahartu egin zara!

&&&

Halako batean,
pixka bat “misteriotsua”
nintzela sentitu nuen.
Eta, zertarako ukatu?
Gustatu egin zitzaidan...

&&&

Ezerk ez dit
beldur handiagorik ematen
burmuin “lau” batek baino...
Nonbaitetik iristen diren
hitz/ideia horien beharra

dudala esan nahi dut.

&&&

Ez dago ideiarik.

Ez dago ezer.

Soilik, isiltasun inozo hau.

C'est tout.

&&&

Ezagutzeaz gose gara.

Baina, zertarako?

Ezagutzaren, jakintzaren beharra
dugulako.

Baina, zergatik?

Gose-mota asko daudelako.

Eta zer gertatuko zait
gehiegi jaten badut

nire gosea asetzeko?

Kristoren lodikote

bilakatuko zarela.

Beraz, neurritz jatea

ondo dago,

bai kasu batean

bai bestean.

Horixe ba...

&&&

“Gutxi irakurri

eta asko idatzi”.

Hori ezin da

horrela izan, Xabier.

Ezin da.

&&&

Baina, batzuetan,

ezintasun batek

ate bat irekitzen digu.

Eta atea zeharkatzen dugunean,

topatzen dugu

topatzea espero genuena.

“Orduan, ezintasunak izatea

txit abantailatsua da”.

&&&

Benetan dagokiguna

bakardade hau da...

&&&

Berdin dio nork
berdin dio zerk
beti egongo gara
erdi-erdian,
traba egiten...

&&&

*** herria zeinen ederra den.
Baina ez nuke bertan etxerik
izan nahi.
Hain zuzen, *** maite dut
bertan etxerik (jabetzarik)
ez dudalako.
Horrek ederrago egiten du,
nire begietan.
Horrek ederrago egiten nau,
bertakoen begietan.

&&&

Beharbada, ilusio bat da.
Baina, nire ilusioa da.
Horrekin, aski dut.

&&&

Zenbat gauza esan ditzakegun
euskaraz!
Hamar mila bider biziko ginateke,
eta gure hitzen hasieran baino
ez ginateke izango.

&&&

Gure etxe ordenagailuaren
disco gogorraren antzekoak gara:
zati txiki bat baino
ez daukagu erabilia.

&&&

Askotan,
zapuzturiko aukerak
bezalakoak gara.
Beste askotan, berriz,

guk geuk aukeraturiko
asmo zaputzak bezalakoak.
Asmatzeko eta tronpatzeko
jaioak gara.

&&&

Zenbaitetan,
su emango nioke
neure herriari.

Orduan, bi gauza
gerta litezke:

- 1) Errautsetatik ezer berririk ez sortzea
- 2) Errautsetatik zerbait berria sortzea

&&&

Beharrezkoa da
geure barne-ahotsarekin
kontaktatzea lehenik,
geure barne-ahotsa
topatu baino lehen.

&&&

Gizaki kaxkarrak
ideologia batez
kutsatuta egoten dira.

&&&

Hosto bat lurrean,
hosto lehor bat,
haizeak suabe-suabe
ibilarazten duena;
zaratatxo bat ateratzen du,
pixka bat mugitzen den
bakoitzean.

“Orduan, zaratatxo hori,
bizitza da.
Bizitza ere bada”, pentsatzen dut.
Begiak gorantz altxatzen ditut
eta hostoa jada ez dago hor.

&&&

Ez izatea inorena.
Ez edukitzea jaberik,
harremanik.
Izan ere, horrek dakarkigu

harmaila bat gehiago jaistea,
askatasunaren galerara daraman bidean.
Jainkozko egoismoa!

&&&

Goazen! Goazen azkar hemendik!
Azkar! Azkar!
Damutu baino lehen!

&&&

Hementxe gaude,
aiduru,
zerk ekarri gintuen
egoera honetara
ideiarik txikiena ere
ez dugula.

Bizitzeko
bizi gara.

&&&

Bizitzeko
bizi gara.

&&&

Bizitzeko
bizi gara.

Baina, beti da beharrezkoa
erantzun bat ematea.

Zorionez,
iritsiko da
egun bat,
non eroriko diren
oztopo guztiak
langa guztiak
erantzun guztiak.

&&&

Poliki-poliki,
geure bizitzako liburua
idatziz goaz.
Iritsiko da eguna,
osorik idatzita
topatuko duguna.

Hori izango da
Egun Handia, Azken Orria.

&&&

Heriotzaz ari naiz,
eta horrek ematen dit kezka.
Ez heriotzagatik, berez;
baina pilatu zaizkidan
urteengatik.

&&&

Denetarako dago
egun bat.
Bat, jaiotzeko;
eta beste bat...
hiltzeko!
Kanta dezagun alai,
azken egun horren ohoretan,
izango baita laburbilduko gaituena,
zentzuz jantziko gaituena.

&&&

Nola tematzen garen
tristeziarekin...
Minaz gozaten duten
masoka horietakoak
ote gara?
Horrek grazia apur batez
hornitu gaitu,
eta, akaso, baita
dohain batez ere.
Baina, benetan nahi ote genuen
hori?

&&&

Euria entzuten dut
zinkeko teilatua
kolpatzen.
Sortzaileak jakingo balu
zenbat gustatzen zaidan,
unean bertan aginduko luke
atertzeko.
(Jainkoei gustatzen zaie
ni izorratzea).

&&&

Aitortu behar dut
oso gogoko dudala
hemen egotea,
Atotxako tren-geltokiaren
ondoan,
nire furgonetan,
gauetz,
udazken hasierako
egun euritsu batean,
poema-itxura duten
gauza hauek
idazten.
Bai, aitortu behar dut:
oso gogoko dut!

&&&

Beti da gauza bera.
Damutzeko gogoa dut,
kristoren gogoa, gainera;
damutzea nitaz,
hartu nituen eta hartu ez nituen
erabaki guztiez,
lagun harengatik negar egin izanaz,
eta, orokorrean... denetaz.

&&&

Nire bihotza ez dago hemen,
inoiz ez dago hemen;
beti dago han,
nik dakidan leku hartan,
laku baten ertzean...

&&&

Debekuak. Debekuz inguraturik gaude.
Planeta osoa debeku handi bat da.
Debekuen erdian, gerra galduta dagoela
[ulertzen dugu].
Amore eman beharra dago, etsi...
Eta etsipen horretan,
gizakia gizakiagoa da,
zeinen hutsalak garen
ulertzen dugunean.

&&&

Betiko itxitako errezel baten

moduan
jausiko den egun bat etorriko
da
noizbait.

&&&

Gaztaroa galdu dugu
haurtzaroa galdu genuen bezala;
aiduru gaude,
hurrengo galera noiz, nondik iritsiko.

&&&

Oso ondo ulertzen ez ditudan
premiak ditut.
Apur bat misteriotsua da.
Erraz hitz egiten dut
berez pisutsuak diren
gauzetaz.

&&&

Batzuetan,
urrutiegia ez dauden
paisaiekin egiten dut amets;
beste batzuetan,
berriz,
oso urrun dauden
paisaiekin egiten dut amets.
Baina kasu batean
zein bestean
ametsak "baino" ez dira.

&&&

Ametsik egiten ez duen
gizasema hilik dago;
baina jarraitzen du
arnasa hartzen!

&&&

Ez dakit
mundu guztiari
gertatzen ote zaion.
Baina, nik, behintzat,
erabateko despedida
baten beharra daukat.
Ez dut itxaron nahi

ezabatu arte
behin betiko agur hori
planteatzeko.
Bizirik ezagutu nahi nuke
une hori.

&&&

Gelan sartu zen.
Ahalik eta gauza gehien
bota zituen maleta barrura.
Etxetik atera zen.
Ez nuen gehiago ikusi.

&&&

Beti dago ahots bat,
esaten diguna:
“hitz egin beharra zegok, motel”.

&&&

Ez dago inor.
Guri begira, zelatan edo,
norbait dagoela
imajinatzen dugu.
Baina, egiatan,
ez dago inor.
Guk, hala ere,
norbait balego bezala
jokatzen dugu...

&&&

Poesiaren arrantzan.
Nik horrela ikusten dut afera:
poesia arrantzatzen
ariko banintz bezala.
Ez dakit kirola ote den...
Lana ez da, behintzat.
Atsegina, astialdia,
olgeta da.
Baita gehiago ere
(hori edozein arrantzalek badaki).
Eta gainera,
atera beharra dago
poesia dagoen ibai edo itsaso batera.
Ziur aski, hortxe dago “grazia”.

&&&

Eta gero,
gauak su hartu zuen.

&&&

Euria hasi du
eta horrek
ikaragarri poztu nau.

–pozak ez du luze iraun,
ordea;
brehala atertu baitu.

&&&

Idaztea idazteagatik.
Ez dago
beste azalpenik.
Bizitzaren aurrean
hartzen den
jarrera bat da.
Besterik ez.

&&&

Eta orain,
bizi beharra dago!

&&&

Liburua itxi,
eta aurrera begiratzuz,
zera pentsatu nuen neure artean:
“Eta orain,
bizi beharra zegok!”.

&&&

Paisaia berri bat
aurkitzen dugun bakoitzean,
erregai gehiago botatzen dugu
arima barrura.
Noizean behin, depositua
bete behar da eta.

&&&

Beno, eta orain
liburua bukatu dugula,

zer egin behar dugu?

Ez dugu berriz abiatzeko gogorik...

&&&

Emoziorik gabeko gizasemeak

zelako antz handia

izan beharko duen

zombiekin!!

&&&

[...] Poetak ezin du halako etxean bizi,

hautsa behar du, iraganaren gaitza,

hondamendiaren lekukotasuna [...]

“Ez duk erraza, konpai”. Koldo Izagirre.

Nik esango nuke Koldo Izagirrek erdizka asmatu duela,

poetak etxe hori barruan baitarama;

ez da kanpoan dagoen etxe bat, fisikoki eraikia...

&&&

Alkoholak 2 orduz

jakintsu egiten gaitu,

eta 22 orduz

asto.

Hala ere,

astorik ez balego

orduak –konbaratiboki–

jakintsurik ere ez.

Eta gainera,

noizean behin astoen modura

jokatzeak

jakintsuago egiten gaitu.

Ergo...

&&&

Iradoki egiten nauten

irakurketetan bildu beharko nituzke

indar guztiak.

&&&

Batzuetan, transzendentala jartzen gara,

zerbait sinplea aditzera ematea

beste asmorik ez beguenen ere.

Bihotzarekin hitz egin beharra dago.

&&&

Gaztelerari susmo txarra
hartu diogu. Baina,
ez dakit zergatik.
Azken finean, beste
hizkuntza bat baino ez da.
Eta litekeena da
–niretzat–
hori baino gehiago
izatea.
Aurreiritziak bazter
utzi behar dira,
beti erraza izan ez arren.

&&&

Gogoko dut eserita egotea,
ezer egin gabe.
Sortze-prozesua hortik
abiatzen da,
“alferkeriatik...?”
Nik ez nuke hori esango.
Baina, akaso bai...

&&&

Inspiratzen gaituzten
liburuetara
ez al genuke irakurketa
mugatu beharko?
Gainerakoa,
ez al da
zarata hutsa
eta denbora galtzea
idazlegaiarentzat...?

&&&

Gure galderak
ibaiak dira
itsasoan hiltzen direnak
erantzunik kausitu gabe...

&&&

Gizabanako modernoari
horixe falta zaio:
bere buruaren aurrean eseri
eta nor den argitzen hastea.

Baina beti jartzen dugu
oztopo bat edo beste
garenaren eta ote garenaren
artean.

&&&

Patagoniako gautxoa
eta Aralarko artzaina:
elkar ukitzen duten bi mutur,
ideal bera,
munduko espejismorik
ederrena,
eskuraezinena.

“Hiltzen garenean,
zerura ez
baina Patagoniara eta Aralarrera
joaten gara”, seme...

&&&

Hainbeste urte eta
ahaleginen ondoren,
neure buruan
izenik gabeko hainbat
nobelaz, ipuinez eta poesiaz
jositako apalategiak edukitzea
lortu dut.
Orain soilik falta zait
pazientzia apur batez
liburu horiek guztiak
gurera transkribatzea...

&&&

Izadiak (paradisua ote?)
beti deitzen gaitu,
beti guri deika daukagu.
Eta guk,
dei sakon eta misteriotsuari
jarraitu baino ezin diogu egin.
Noizean behin merezi izaten du...
amore ematea.

&&&

Maitasun-mota asko daude:
gurasoekikoa, seme-alabekikoa,
adiskideekikoa, gizateriarekikoa,

zaletasunekikoa...
Hainbeste dira, gogaikarria bailitzateke
denak zerrendatzea.

&&&

Gorroto-mota asko daude:
gurasoekikoa, seme-alabekikoa,
adiskideekikoa, gizateriarekikoa,
zaletasunekikoa...
Hainbeste dira, gogaikarria bailitzateke
denak zerrendatzea.

&&&

Bihotza dugu ipar-orratz:
garbi ez daukagunean,
hark erakutsiko digu bidea.

&&&

Edertasuna,
gizakiaren bidaide
zaharra.
Atomoa bezain zaharra,
ziur aski...

&&&

Gure bizitzak
gure bidean gurutzatu diren
lerro guztien emaitza dira.
Orain, soilik falta zaigu
“lerro” kontzeptua zehaztea.

&&&

Labirinto batetik irteteak
beste labirinto batera garamatza,
eta horrela behin eta berriro,
behin eta berriro...
inoiz ez dugu azkeneko irteera topatuko,
gure itxaropen eta etsipenerako.

&&&

Zeinen zirtzilak garen,
geure handitasunean.

&&&

Iheslaria
infernutik zetorren
iheska
-noski-;
eta bere bidean,
zerura iristeko
bere ihesaldian,
esku lagun ugari topatzen zituen
anonimatoan; ogia, ura eta ardo bizkorgarria,
gaur bateko kamaina eta aterpea, animozko hitzak...
ez zituen inoiz faltan izan.
Ez dakigu lortu ote zuen!

&&&

Hegazkin-pilotua
pilotatzen ari zela
hil zen
bihotzekoak emanda.
Orduz geroztik,
hortxe dabil
zeruan beti,
hogei batetik bestera
bere aireplanoan,
grabitate-legeari erronka,
zinez era ulergaitzean.
“Gure Ametsa” zuen izena aire-ontziak.

&&&

Gaur ere merezi izan du
lorategira etortzea:
txoriei entzun, hostoen fru-fruari entzun...
Lorategi bakoitzak
bere ahots partikularra du.

&&&

Esan nion
torloju hura
ez askatzeko.
Baina
ez zidan kasurik egin.
Orain ez dago ezer egiterik:
lehenik, gure kontinente zaharra
eroriko da; gero planeta osoak
jarraituko dio; gero, ilargiaren
eta gure eguzki-sistema osoaren
txanda etorriko da; gero...

Esan nion
torloju hura
ez askatzeko.
Baina
ez zidan kasurik egin.

&&&

Gutxien uste dugunean
sortzen da hitza:
aurkitzeko dagoen
gure planetako azken
izaki (ornodun) biziduna.
Oi, National Geographic-ekoek
jakingo dutenean...!

&&&

Ezereza irudikatu beharko banu,
hitzik gabeko espazio
(beldurgarri)
baten gisa irudikatuko nuke.

&&&

Izar eta konstelazio
guztiak dauzkagu
guri begira:
gure herrikotasunaren,
gure koldarkeriaren,
gure lerderiaren eta kemenaren
lekuko isil...
Eta bai, hobe isilik egotea.

&&&

Behin, torlojuak askatzeko
tresna hartu eta bere tinpanoak
zultatzeke zorian egon zela
kontatu zidaten.
Ezin zituen zaratak
luzaroago jasan.
Zorionez,
une hartan,
ume jaio-berri baten negarra
heldu zitzaion belarrira
eta ideia ergel hura
berehalakoan baztertu zuen.
Orduz geroztik,

neonatoen plantan egiten du
[lan]
eta munduko gizakirik
zoriontsuena
da.

&&&

Batzuetan,
zu zarena finkatzeko
beharrezkoa izaten da
besteak direna
pixka bat...
mugitzea, altxatzea,
bere lekutik ateratzea...
egonarritsuegi eta borondatetsuegi
azaltzea
ez baita ona.

&&&

Mundua... zeinen txikia den
familia batez arduratu
behar duzunean...

&&&

Puzkertxo batek
beti zirriborratuko digu
irriño bat gure begitardean,
unerik txagikoenaren erdian egonda ere.

&&&

Azkenean,
egun batean ohartzen zara:
bizitzaz zirina baino
ez zaizula geratzen.

&&&

“Hasperen” hitza,
zeinen polita eta iradokorra...
Esango nuke
munduan entzundako
lehen izaki bizidunaren soinua
hasperen bat izan zela...

&&&

Besteen hizpidean
 inoiz egoten ez zen gizona;
bat ere hitz egiten ez zuen gizona;
 horixe naiz ni.
Eta harro nago.

&&&

Herio,
 gure gertuko antzezlekuetan
eroso jartzen denean...
 ez dago zer eginik!

&&&

Lantzean behin,
 badirudi
 dena –den-dena–
 falta zaigula.

&&&

Izan gintezkeen oihartzunez
 inguraturik bizi gara;
finean,
 ez ote gara
“izan gintezkeen” oihartzunek
sortutako kimera bat,
 gaur, orain, une honetan....?

&&&

Badira obsesioak,
 lore-itxura hartzen dutenak,
 euren lurrinekin eta guzti...

&&&

Zergatik
 maite ditut
 euri-egunak
 horrenbeste?

&&&

Egunen mugimenduak
 zelatatzen gaitu;
egunetako mugimenduak,
 berriz,
nostalgia *baten* aurrean

jartzen gaitu...
Ez egin kasurik,
horiek
nire gauzak
baino
ez dira
eta.

&&&

Biziki
iradokitzen gaituzten
liburuekiko
distantziak
jarri behar dira,
plagioan eroraraziko gaituzten
arriskuei
ihes egingo badiegu.

&&&

Hau ez da poesia bat;
hau, poesia da.

&&&

Belaunaldi bakoitzak badu
halako zentzu apokaliptiko berekoi bat
existentziari buruz,
zorrotuz joaten dena
belaunaldi hori agortu ahala.

&&&

Bukatu egin behar
berriz ere hasteko.
Horra bizitzaren “maxima”:
laua baina eraginkorra,
oso.

&&&

Denok gara oso delikatuak,
zakarkeria
gure bidean
gurutzatzen den arte.
Animaliengandik gatoz.
Zer nahi duzue, ba...?

&&&

Eguraldi txarra
egiten duenean,
neure benetako naturarekin
egiten dut topo.
Jakin beharra dago
norberarekiko
arrotza
izaten.
Hau ez bada sententzia bat,
orduak nik ez dakit
sententzia bat
zer den.

&&&

Zeinen ederra den
nire bordatxoan egoeta
kanpoan euria gogor ari duenean.
Zer egon daiteke
hori baino ederragorik?

&&&

Atzean
ezer uzten ez duen
gizakia
hori bai gizaki askea!

&&&

Zelatatzen gaituzten
sentsazioak
laguntzen digu
bizitzako une guztietan
–gutxitan ohartzen bagara ere–.
Ez dakit kontzientzia ote den,
edo beti erne dirauen
zazpigarren zentzumen
misteriotsu bat.

&&&

Euria gogor ari duenean,
beharrezkoa da
zeregin guztiak
[bertan behera utzi]
eta entzuten geratzea.
Euria,
munduko/bizitzako lehen miraria,

gainerako mirari guztien artetik
lehen!

&&&

Haizea,
bai soinu zaharra,
hemen, gure planetan...
Antzinako, betidaniko soinuetako
bat da.
Nolatan ez zaigu
haizeari entzutea
gustatuko?
Izan baitu astia, izan ere,
bere ahotsa lantzeko!

&&&

Bakardadea...
nola maite dudan!

&&&

Beti egongo gara
bultzatuta
gure bizitzako
xedearen bila
joatera.
Hori, jaiotzarekin batera
emana zaigu.

&&&

Ezerezaren erdian galduta
nagoelako sentsazioa dudanean,
juxtu orduan
sentitzen naiz
neure saltsan.
Horra!

&&&

Etorkizuna,
aieru txarreko
hodeitzar bat.
Zorionez,
ekaitzaren ondoan,
barealdia dator.

&&&

Alde egitearekin
egiten dut amets,
behialako askatasuna
berreskuratu!

Bai, gizon gutxi izango dira
ni baino egoistagoak.

Maldizio bat da,
bakerik ematen ez didan
maldizio bat.

&&&

Egunen batean
inporta zaizkidan
pertsonek bakanei
adio esan beharko diet,
baina ez dut heriotza gogoan,
benetako despedida baizik.

&&&

Ez-nolanahiko dimentsioa
hartzen duten
zirtzilkerietan bizitzea...
hori arte bat da.
Agian, zentzu horretan,
eta soilik zentzu horretan,
ni artista bat izan naiz.

&&&

Denok daukagu
autistaren zer-edo-zer,
sentimendu jakin batzuetan
murgil egiteko ezintasuna.

&&&

Jendea xuxurlaka eta marmarka
entzuten dugu geure inguruan.
Gutaz ari direla uste dugu...
hutsalak gatzazkio munduari, ordea,
erabat indiferenteak.

&&&

Azken poema baten titulua
baizik ez nuke idatziko nik:
“Abiatu beharra dago”.

&&&

Agian,
zentratu beharko genuke
beti
iradokitzen gaituen
horretan.

&&&

Gorroto ditut
intxaur-biltzaile
amateurrak.
Paisaian
orbana
bezalakoak
dira.

&&&

Hara! Telefono higikorra
etxean ahaztu zait.
Orain, Robinson Crusoe
bezalakoa naiz!
Ingurumari bakarti batean
galduta!

...

Hamaika arrisku latzez
inguraturik egon!
Arkuz eta geziz
hartz beldurgarriak
akatu!
Silexez eta adartxo
ikasi
egiten
sua!

...

Ai, ama!
itzuliak gara
hasierako
denboretara!
Oi, telefono higikor maitea:
ez nengoen ohartuta
denborako makina itzela
zinela!

&&&

Amodio guztietatik
iheska gabiltza,
gu,
amodio-grinan
urtzen ginenok...

&&&

Ihes egiteko
jαιοak gara.

&&&

Zer dugun buruan
jakingo bagenu...

&&&

Badaude arrazoiak
oso "arrazoizkoak" berauek,
baina arrazionaltasunaren
amildegira
zuzen-zuzenean
botatzen gaituztenak.

&&&

Jakin beharra dago,
baina jitez,
senez.

&&&

Maitasuna eta morala...
asko idatzi da
binomio honetaz.

&&&

Munduak
erregai behar du;
gu gara
munduaren erregaia.
Very cheap...?

&&&

Gauza bat garbi-garbi dago:

Unibertsoak digun
indiferentzia.

Jainkozko indiferentzia ote...?

Dударик gabe, lagun.
Dударик gabe.

&&&

Konfidantza handiagoa
izan beharko genuke
gugan.

Sarritan,
hori izaten da
arazoa.

Arazo bakarra.

&&&

Mutila oso gaztea zen.

Eta haren bizilaguna
ere, berdin.

Guraso berriak ziren.

Neskak ume jaioberri bat
zeukan besoetan.

Mutila haren ondoan eserita,
bungaloweko atarian,
terrazan.

Oso adeitsuak biak.

Mutila, "*trés gentil*".

Kanping batean ginen, oporretan,
ni eta familiakoak,

Frantzian.

Frantsesak ziren
eta bi astez auzoko izan
genituen.

Guk baino lehen
egin zuten alde.

Ez genituen gehiago ikusi, noski.

Baina haien oroitzapena
ez zait iraungi,

urte asko eta asko
igaro badira ere.

Zerbait handia
sinbolizatzen zuten
niretzat.

Gau ilunean,

argiune bat bezalakoak ziren,
haien irudia hain zen samurra...
biak hain gazteak,

zorte pixka batez...

&&&

Gorrotagarria da
pentsatzea
zure etxean jendea
kezkatuta dagoela,
artean iritsi ez zarelako.
Erabateko
“burujabetasunarekin”
egiten dut amets.
Neurekoia naiz,
badakit.
Baina,
zer nahi duzue...?

&&&

Pinguinoa
ala
kanguroa.
Nik lehena nahiago nuke izan,
aukeratu behar izanez gero.
Niri eman iezazkidazue urari,
hotzari, haizeteei,
elurrari eta hezetasunari
loturiko egoerak.
Eguzkia eta lehorrea
eta beroa eta palmondoak...
aktore pornoentzat.

&&&

Metro koadro gehiegirekin
amestu dugu.
Orain, esnatu egin gara
eta hortxe egin dugu topo
amesgaiztoarekin.

&&&

Gizakiak
ez garamatza inora.
Gizakiaren aldeko borroka,
borroka galdu bat da.

&&&

Itsuki sinesten dut

neure nihilismoan
(ez hainbeste besteanean).
Bestelako hitzez
 esanda:
jokoz kanpo nago,
 eta zer?

&&&

Pertsona batzuk
 kementsu
–areago, biolento ere–
 azaltzen dira
behin edan
 eta gero.
Beste pertsona batzuek,
 berriz,
 hori bera lortzen dute
alkohol-tantarik
 bat ere
 edan gabe.
Horiek dira onenak.

&&&

Nire belaunaldikoak
 hilda egongo direnean,
Historiako orri bat
 pasatzeko
 ordua izango da.
“Baina, lehenik,
 idatzi egin beharko da,
 ezta?”
galdetuko du baten batek.
Eta erantzuna, ziur aski,
 hauxe izango da:
“Bai, baina datozenak
 arduratuko dira horretaz,
 datozenak”.

&&&

Zergatik pentsatzen dugu beti
 daukagun denbora
 ezin baliotsuagoa dela?
Erantzuna: holaxe delako.
Eta zertarako da baliotsua...?
 Hori bai galdera ona.
Bakoitzak bilatu beharko du
 bere erantzuna,

nik neurea garbi daukat:
...-tzeko.

&&&

Hauteskunde-bezperan
gogoeta-eguna izaten da.
Nire ustez,
egunero izan behar luke
hauteskunde-eguna,
orduan.

&&&

Oso ariketa interesgarria
eta beharrezkoa da
noizean behinka hormari begira
[jartzea].
Aldarrikapena, matxinada-keinua
bezalakoa da.
Geure buruari
zor diogun ekintza,
alegia.

&&&

Argitaratzaile batzuk
hain zirtzilak dira,
ezen,
bidaltzen badiezu
kalitateko lan bat
izen faltsu batez izenpetuta,
esango baitizute:
“A, zer ona liburua!”
Eta norena den benetan
jakitean,
atzeraka hasiko zaizkizu
zentzugabeko arrazoiak
argudiatuz, marmartuz.

Irakurle batzuekin ere
berdin-berdin
gertatzen da.

&&&

Paisaiari aprezioa diot;
jitez bilatzen dut.
Nire ustez, gizaseme guztiek dute
paisaiaren premia.

Eta paisaia diodanean,
naturaz ari naiz,
izadia dut gogoan.

Industrializazio dekadenteak
sorrarazitako paisaia urbano
higuingarrietan droga, sexua
eta rock&roll besterik ez
duzue topatuko.

&&&

Izadia falta zaigunean,
izan gintezkeenaren laurdena ere
ez gara.

Esan berri dudana ulertzea
alde batetik oso erraza da
eta beste alde batetik
oso korapilatsua.

Hori dela eta, gizakiak
zera erabaki du:

Artikora joan
eta bertako ondarea
espoliatzen hastea.

Gizakion leinua:
lapur-leinua.

&&&

Dikeak erorka hasiak dira.
Batzuk dagoeneko lurtean daude.

Laster, itsasoa sartuko
zaigu geure etxeetan,
geure hiri eta landa-guneetan.

Poliki-poliki gertatuko da,
ihes egiteko aukera
eman nahiko baligu bezala,
gurekin jolasean bezala.

&&&

Idazleak bere burua
ikusirik behar du laranja
bat izango balitz bezala.

Eta, zer egiten dugu
laranja batekin,
laranja horren zukua
nahi dugunean?

Zukutu egiten dugula,
ezta?

Bada, idazleak berdin-berdin

egin behar du
bere buruarekin.

&&&

Idazle batek
zuzenbidea ikasita zeukan
eta beste batek
medikuntza-ikasketak
eginak zituen.

Biak ziren idazle arrakastatsuak
eta sekula ez ziren
ikasitako lanbideetatik
bizi izan.

Horregatik,
biak,
zintzotasun handiz,
zera aitortzen zioten
mundu guztiari:
“Egunen batean abokatu edo sendagile
on baten premian egongo bazinate,
ez jo gugana”.

&&&

Sua ebakitzekoak.
Badakizue,
mendian jarri ohi direnak.
Guk ere
horrelakoak jarri behar ditugu
geure bizitzetan.
Horretarako,
erne egon behar
baina,
erne egon behar.

Eta gainera, litekeena da
nonahi jarri ezin izatea.

&&&

Hemen
antza
ongi etorria den euria;
hortxe, ordea,
ia-ia aldamenian,
arazo-iturri.

&&&

Inportanteena

ez da
ur asko
batera edatea,
behar duguna
poliki-poliki
eta antsiarik gabe
hartzea baizik.

&&&

Bizitzaren zati eder bat
lotan amesten
joaten zaigu,
eta beste zati eder bat
esna amesten.
Orduan, gure bizitzatik
zenbat da amets
eta zenbat errealitate?
Edo, zenbateraino daude
biak nahastuta?

&&&

Nire esku-ahurrei
begiratu diet,
oharkabean,
eta zimurrez beteta
kausitu ditut
ez-nolanahiko
harriduraz.

&&&

Denbora,
zeinen isila
eta zitala,
zeinen
errukigabea.
Alferrik ariko zatzazkio
erreguka,
gelditzeko une batez,
egiteko etenalditxo bat...
Murru batek
kasu handiagoa
egingo lizuke.

&&&

Zer gutxi behar dugun
zoriontsuak izateko,

eta zenbat
zoritarrekoak izateko.

&&&

Gizakiok...

Bo!
Ez-jakin batzuk,
denok,
beti.
(ni lehena, noski)

&&&

Orri txuri bakoitza,
abentura berri bat.

&&&

Margolari batek
mihise berri baten aurrean
jartzean sentitzen duen
hunkipena
oso-oso
ondo ulertzen dut.

&&&

Itzultzeko garaia da.
Hori da gogorrena.
Itzultzeko une hori.

&&&

“Ez, ez dut
ibiltzen jarraitu nahi.
Hementxe geratu
nahi dut”,
zioen adineko ibiltariak.
Eta gainerako lagunek
erdeinati baina
ulerbera
begiratzen zioten.

&&&

Besteen tragediak
beti du
zer-edo-zer irrigarri.
Norberarenak,

sekula ez!

&&&

Mundu galdua,
mundu berraurkitua.

&&&

Samurtasuna...
landu egin behar da.
Baina errazagoa da esaten
egiten
baino.

&&&

Diamantea
hain da ederra.
Badu akats bat ordea:
hain da hotza!

&&&

Kobazulo batera
joan zen bizitzera;
handik zenbait urtetara
kobazuloak irentsi
eta ez zen berriro iritsi
hartaz
ezer jakitera.

&&&

Hizkuntza batean
hitz egiten duenak
hizkuntza guztietan
hitz egiten du.
Zirkunstantziak dira
arrotz bihurtzen gaituztenak.

&&&

Nire herrian
gure Ama Birjinak
ziren sorginak;
inkisidoreak, ordea,
deabru zitalak.

&&&

Lehen, zera esaten zen:

“Indonesiako uharte ttipi batean
tximeleta batek bere hegalei eragin
eta munduko beste puntan
lurrikara bat gertatzen da”.

Orain, ordea, zera esan beharrean gaude:

“Amazonian zuhaitz bat moztu
eta munduko beste puntan
(esaterako, gure herrian)
uholde bat gertatzen da”.

&&&

Txanogorritxu

gizatxar batek bortxatu zuen,
basoan,
hura bere amonaren etxera zihoala.
Basolariek horren berri izan zutenean,
haizkorak hartuta,
basora jo zuten
–gizatxarra bilatu, aurkitu
eta euren haizkorekin
zati-zati egiteko asmoz–.
Baita egin ere.

“Eta hala izan ez bazan
sar nadila kalabazan”.

&&&

Behi, baso batean nenbilela,
orein eme batekin egin nuen topo;
luze egin zitzaidan une batez
geratu ignen elkarri begira.
Mikrosegundu batez, baina,
zerbaitek distraitu ninduen.
Eta berriro begiratu nuenean,
oreina alde egina zen.

&&&

Mistizismoa, neurri batean,
ondo dago.
Baina birplanteatu beharra dago,
erlijio instituzionaletatik
urrun eramán,
lamiekin eta Anbotoko Marirekin
eta delfoekin eta, oro har,
izadia sinbolizatu duten

pertsonaiekin aspalditik
eduki izan dugun lotura
berreskuratu arte,
jolas bat bezala.

&&&

Kaiera itxi
eta etxera itzultzeko ordua
heldu dela uste dut;
Interneten,
inoiz erosiko ez dudan
karabana bilatzen
jarraitzeko.
Amets batek
nola laguntzen digun
aurrera egiten!

&&&

Gure bizitza
amets bat da,
zeinean
iraultzen garen
txerriak lokatzean
nola.

&&&

Infinitua,
bi aldiz inoiz
gertatzen ez dena
da.
Horra infinitua zer den!

&&&

A, batzuei
nola kostatzen zaien
puzker on bat
botatzea.
Eta gainera,
ez al dute, ba,
besteon gozagarri
gertatzea nahi?

&&&

Gaur,
pentsatzeko gogoia daukat.

Baina badago
zer-edo-zer
artega jartzen nauena.
Ez dakit zehatz zer den.
Arrisku-mota bat
izan daitekeela
uste dut.

&&&

Amesteko ez ezik,
sentitzeko ere
jaioak gaittuk.

&&&

Orri-multzo bat
ordenatu behar dudanean,
nire bizitzako epe bat
ordenatu beharko banu
bezala da.

&&&

Munduak
huts egin
digu;
eta guk ere
huts egin diogu
munduari.
Orain, kito gaude.

&&&

Aspalditxotik ez nituen
poema batzuk eskuz idazten,
bolalumaz;
ez dira lehenak izan,
hortaz,
eta zinez espero dut
azkenak ere ez izatea.

&&&

Gaur badirudi
arrain (poema) gutxi
dabiltzala
ibaian (poetaren etxean).
Akaso izango da
ibaia apur bat

harrotuta,
apur bat hazita
datorrelako?

&&&

Orpheoren bide bihurriak
misterio huts dira.

&&&

Haizeak jotzen duen lekuan
gizakion musika-tresnek
egin dezaketen gauzarik onena
isiltzea da.

&&&

“Hiltzeko jaiok gaituk”.
Tontakeria bat dirudi,
hamaika aldiz esandako topiko bat.
Baina, zeinen esanguratsua den,
eta nola ez den guztiz lehortzen
esan eta esan arren.

&&&

Sorkuntzarako
hobe da
antsiarik
ez erakustea.
Etorriko da, berez,
etorri behar duena.
Edo ez da
inoiz etorriko.
Kasu batean
zein bestean,
ondo.

&&&

Natura
ikaragarria da
hor kanpoan;
bien bitartean,
ni, hemen,
goxo-goxo,
poesiaren arrantzan.

&&&

Frantsesa...
zeinen hizkuntza
 iradokorra den.
Batzuetan pentsatzen dut
ez ote diodan zor
 nik uste
 baino gehiago...

&&&

Kantitatea
 eta
 kalitatea.
Biak paretik doazenean,
 “Kita ke mantxo!”.

&&&

Amore ematen
 jakin beharra dago.
Aski da esaten
 jakin beharra dago.
Ez dut nahi esaten
 jakin beharra dago.
Ufa!
 Zenbat gauza jakin beharra dagoen!

&&&

Bizitzako poesia antzematea,
 hori ez da huskeria;
horretara jarrita egon behar duzu,
 begiak zabal
 eta
 bihotza erne.

&&&

Hainbeste gauza esan nahi ditugu,
 mutu gelditzen baikara.

&&&

Udarako,
 oso liburu ederra
 izango da
 hau.

&&&

Fruta-arbolak
ez du
presarik;
ezta guk ere.

&&&

Etorkizuna,
gertakizun dagoena
alegia,
dei bat bezalakoa da.

&&&

Bizitza osoan
egon zen
inoiz gertatu ez zen
dei haren zain.

&&&

Badaude alferrikako
itxaronaldiak.
Horiek ere
jokoaren parte dira.

&&&

Alferrikako lekuetan bila
aritzea;
horra zer ekidin
behar den.

&&&

Hainbat dira
galdu ditugun gauzak,
eta hainbeste
irabazi ditugunak.
Kontaduria horretan,
gastu eta sarreraren arteko
orekari
eutsi egin behar...

&&&

Hemen nago.
Hemen nago erabat.
Hementxe nago, eta horren erabat,

ia-ia ez naizen kabitzen.

&&&

Abiatu beharra dago.
Mundu guztiarentzako
da beharrezkoa
abiatzea.
Nik ez nuke esango
hartara beharturik
gaudenik.
Baina, dudarik ez dago:
abiatu *beharra* daukagu.

&&&

Zailena,
zeure buruaren aurrean
gelditzea.

&&&

... orduan hasten zara
konturatzen
ertz eta erpin asko
daudela
zeure inguruan...

&&&

Inoiz ez al diozue
zeuen buruari galdetu
zer ez zinateketen izango
munduko denbora guztia
eskuetan izan bazenute?
Nik, bai. Askotan.

&&&

Lekukorik ez dagoenean.
Orduan hasten da onena,
gu geu garenean.

&&&

Ez naiz indiferentea izan,
biziraungintzan
aditu bat baizik.

&&&

Zehatz-mehatz esanda,
hauxe da
nire bakardadea.

Sar eta ikus
(debekatuta dago
argazkiak ateratzea
eta ezer ukitzea).

&&&

Poesiaren arrantzan ibiltzen naizenean,
lapur bat banintz bezala
sentitzen naiz,
inorena ez den
–akaso existitzen ez den–
eremu estraino batean,
zer diren ondoegi ulertzen ez ditudan
jaberik gabeko gauzak
lapurtzen ariko banintz bezala.

&&&

...bai, egia da.
beti geratuko zaigu hitza...

&&&

Oso gutxi behar da
zoriontsuak izateko.
Egia.
Baina, halaber,
asko behar da.
Hori ere, egia.

&&&

Onartu beharra dago:
egun batean aintzirara joan eta
arrainez lehorturik topatzen duzu.
Eta orduan,
orduan,
beste aintzira batera joatea
beste erremediorik ez dago.
Edo, besterik ezean,
–inspirazioaren kasuan bezala–
denborari denbora zor zaiola
ohartzen zara,
eta orduan,
orduan,

bertan eserita gelditzen zara,
aintzira arrainez berriro
bete arte.

&&&

Idatzi dudan
azken lerroa
ikusten dudanean
azkenekoa izan daitekeela
pentsatu ohi dut,
eta horrek
gogo izugarria ematen dit
hurrengo lerroa idatzi
eta *ikusteko*.

&&&

Zeinen hunkigarria den
inguratzen zaigun guztia.
Pena da
horren mugatuak
horrenitsuak, eta
horren zirtzilak
izatea
[gu]

&&&

Munduak,
ezagutu dugun bezala,
desitxura handia
hartua du.
Haurren koruak digu erantzuten:
“Baina guk soilik abestu nahi dugu!”

&&&

Musikari, pintore, idazle
jenialek sortutako obren aurrean
paratzen gara, haien jenialtasunaren
zerbait atxikiko ote zaigun.
Ulregarria bada ere,
aitortu beharra daukagu
den-dena ez dela
borondate-kontua,
ahalegin-kontua.
Badira ikasten ez diren,
edukitzen diren
ala

edukitzen ez diren
hainbat eta hainbat
gauza.

&&&

Hartu beharreko erabakiek
inguraturik gauzkatenean
–eta guk erabakiak hartzea,
hain zuzen,
hainbeste gorrotatzen dugunean...

&&&

Finean,
erabaki guztiek garamatzate
leku berera.
“Forma-kontua dek”.

&&&

Denboraren jabe izateko
irrikan gaude denok.
Baina, halaber,
izu-laborria
eragiten digu.

&&&

Poesia-liburuaren izenburua
asmatzea baino ez zitzaidan falta.
Hiru izen neuzkan pentsatuta:
? 1,60 €
? Vivaro-ko Kaierak
? Poesiaren arrantzan

Azkenik, zuek dakizuenaren alde
egitea erabaki nuen.

&&&

Beharbada,
zerbaiten amaierara
helduak gara,
eta ez du merezi
gehiago tematzea,
amaiera hori itsustea
izango bailitzateke
bide horretatik
lortuko genukeen

guztia.

&&&

Ekaitzaren ostean
eguzkia
eta
Eguzkiaren ostean
ekaitza.
Horra betikotasuna.

&&&

Paul Henri Capdevielle:
ez dakit gehiegi fidatu behar ote dudan
gure herriaz-eta egiten dituen
iruzkinetaz.
Azken finean,
ez al dira atzerritar baten
kontsiderazioak...?

&&&

Beharbada
ez naiz
irakurtzen ari
benetan irakurri beharko nukeena
benetan idatzi nahi dudana
benetan idatzi ahal izateko.

&&&

Zuhurrak izatea
ondo dago,
baina bai aspergarria...

&&&

Geureganatzen ditugun ideiak
iragazi egin behar,
bestela... inbasioa!

&&&

Kontraesanak
gure arimaren
zati dira.
Horiek gabe,
ez gara ezer.

&&&

Solidarioak gara
gauzak ondo
doazkigunean.

Eta gurekoiak,
gainerako kasuetan.

&&&

Egiarik biribilenak...
agerikoenak,
sinpleenak,
begi-bistakoenak
dira;
hau da,
ikusten
ulertzen
bistaratzen
zailenak.

&&&

Puntuazio baten bila
ibiltzen gara,
ahalegin horretan
bizia jokoan bagenu bezala.
Errealitatean, ordea,
ez dago puntuaziorik,
gu baino ez gaude,
eta gutaz edukitzeko
gai garen
ideia, pentsamendua, forma.

&&&

Aterako gara kalera,
bai,
beste erremediorik
ez daukagunean.

&&&

Lehenago edo beranduago
botereak
–klase politikoak–
bere benetako aurpegia
erakusten du.

&&&

Gauza pozgarria da
gure erotika
ibili
oraindik
badabilela
ikustea.

&&&

Frantses hizkuntza
oso iradokigarria zait.
Zenbaitetan probetxua
ateratzen diot,
eta euskararako zubi
ona izan daitekeela
begitantzen zait.

&&&

Sortze-lanetarako
beharrezkoa da
ate-leiho guztiak
irekita uztea,
korrontea gerta dadin,
airea berritu dadin.
Eta gero, ate-leiho guztiak
ondo-ondo itxi
eta...
ekin!

&&&

Liburu batzuk
iradokigarri
gertatzen diren moduan,
beste batzuekin, ordea,
gutziz kontrakoa
gertatzen da.
Sortze-lana xede duenak
azken horietatik
ihes egin behar luke
izurritik bezala.

&&&

Herri baten
murruek entzuten dutenean...
kontuz ibili
beharra dago.

&&&

Begiratu,
begiratu
zeure inguruan
eta egiaztatu
munduko zein ertz
okupatzen duzun.
Begiratu, egiaztatu
zeinen desolatua den
bizileku duzun ertza.
Inorena ez den lurralde bat!
hitzik gabea!
zein biluzik!!
zeinen biluzia!!

&&&

Gogoetak etenda,
aurrera begiratzen dugu,
eta euriak osatu errezel
handi, itsu bat
besterik ez dugu
hautematen.
Glory of days!

&&&

Beti egongo naiz
hemen...
Ezereza dibino
honetan...
Ezer galdetu
gabe...
Erantzunik
espero gabe...
Baina,
beti egongo naiz
hemen...

&&&

Gutaz ase gaudenean,
gutaz mukuru,
gutaz... gogaiturik...
Sentsazio hori
ez al duzue
inoiz izan?
Gutaz den-dena oso jakina

gutaz den-dena oso ezaguna
balitzaigu bezala...

&&&

Endredoak
eta korapiloak,
horra bizitzako
metaforarik
zehatzenak.

&&&

Nekatuta nago
irakurtzeaz
Nekatuta nago
gauza guztiez.
Begiak itxi
nahi nituzke
eta berriro ez ireki...
INOIZ EZ! INOIZ EZ! (Eskola-umeen korua)

&&&

Ama, joan beharra daukat
itsasoz bestaldera
hain baititut nire zain
neure hiru emazteak
eta neska-lagun bat.
Bata da begi-urdin
bestea begi-berde
eta hirugarrena
begi-urdin eta berde.
Neska-laguna da beltza;
are beltzagoak dira,
ordea, haren begi ederrak.
Agur, ama!
Joan beharra daukat
itsasoz bestaldera!

&&&

Ustekabean,
indarkeriaz jositako
irudiek
asaldatzen naute.
Eta nik
egiten uzten diet...

&&&

Buruan,
esan nahi ditudan
gauzen pusketak
ditut.

Zailena, pusqueta guztiak
batzea
izaten da.

&&&

“Zu zeu” izatea
bilakatzen zaituen zerbait
topatzen duzunean,
“horri” eustea
halako obligazio bat da.

&&&

Gainezka egiten duten
hitzak,
eta hautsari haginka
egiten diotenak...

&&&

Hitz-labirinto bat.

&&&

Deskubrituko ote naute
egunen batean...?
Ikusiko dudalako esperantza
gutxi.

&&&

Esku-hutsik itzuli ginen
handik,
baina... merezi izan zuen!

&&&

Euria gogor, oso gogor ari zuen,
eta nik neure artean:
“bota, bota,
karioka!”,
zoriontsu...

&&&

Jainkozko egoismoa!
Jainkoak berak emana
zertaz damutu
izan dezagun.

&&&

Izan euskaldun
izan erdaldun,
bere ama-hizkuntza
aintzat hartzen ez duena...
a zer galera
beretzat...
(eta besteentzat!)

&&&

Euri-zaparrada handi bati
begira nengoela,
“hauxe malkotegia”
pasatu zitzaidan
burutik.

&&&

Hemen nago,
neure etxean nago,
bide-bazter batean,
ezerezaren erdian,
nire furgonetan.
Hori “perfekziñoa” ez bada,
orduan, zer da?

&&&

“Beno”, esan nion familiari,
“eta zer nahi duzue ba?
Ez naiz bizitza osoa pasako
Miramonera joaten.
Herrialde oso bat daukat-eta
deskubritzeko”.
Gorrotok begiratu zidaten denek.

&&&

Amesten ari nintzen
hainbeste amesten ari nintzela,
ezen, esnatu naizenean,
ikaraz ohartu bainaiz

amesten jarraitzen nuela.

&&&

Halako ukitu apokaliptiko bat
zegoen, euri-zaparrada hartan.
Ni itxurak gordetzen
ahalegintzen nintzen.

&&&

Higatik ez balitz,
orduak izango luken nigatik.
Ulertu al dun,
Kattalin?

&&&

Mundu guztiak zeukan erabakita
alde egitea.
Ni baino ez nintzen gelditzen.

&&&

Atea ireki zenean,
pilotua hodei batean esertzera
joan zen.
Orduan ulertu genuen
abioi-istripua
zinez hilgarria
izan zela.

&&&

Mahatsa biltzeko
ez du euririk egin behar.
Nik ekoizten dudana fruitua,
ordea, euri-egunetan bildu behar da.
Bereziki, euri-egunetan
(ideiak argi edukitzea bezalakorik
ez dago).

&&&

Atertzen duenean da
gogorrena,
ametsak iraungi
eta berriro
esnatzen zarenean.

&&&

Ez, ni ere ez naiz Hemengoa.

Ni Hemendik pasatzen ari nintzen eta...

Kasualitate hutsa izan da.

Bai, baina,

zer ez da kasualitate hutsa...?

&&&

“Bizitzan deserosoa egiten zaidana,

darion erosotasuna da

hain zuzen”,

esan zuen “le petit” burgesak

iraultzailearena eginez.

&&&

“Ordua gerturatuz doa”.

“Horrela dira gauzak”.

“Kexuka ez goaz inora”.

“Denbora agortu da”.

Erdaraz, “frases lapidarias”

esaten zaizkie horrelakoei;

euskaraz, agian,

“harrizko esaldiak...?”

&&&

Ni aurkitu nahi banauzu,

animalia ttipi-ttipiak bizi diren

gordetegietan bilatu

beharko nauzu.

&&&

“Harrizko esaldiak”,

asko gustatzen zait

metafora hori.

“Harrizko esaldiak” esapideak,

lehen aitatu dudan

erdarazko esanahia

gainditzen du

(soberan gainditu ere).

&&&

Dena hain da berdea

nire inguruan...

Nire eskuei, hankei, oinei

begiratzten diet
eta berde-berdeak direla
ohartzten naiz
atseginez.
Zeinen berdea naizen!
Baina, hostoa ez ote naiz izanen?
Hau bai zoriona,
hostotxo bat naiz
eta!

&&&

Hitzik onenak,
ustekabeen
harrapatzen
gaituztenak.

&&&

Musikaria izan nahi nuen...
eta banaiz!

&&&

Diruzaleak...
Sekula izan beharko ez genukeena
hori dela
uste dut.

&&&

Bizi garen bitartean
hilezintasuna, betikotasuna egiazkoak direla
geure seme-alabei sinetsaraztea, sentiaraztea...
horra gurasoen
lorpenik handiena.

&&&

Jakitea
inoiz ez geniola
gu geu izateari
utzi,
ezta gutaz gutxien
gustatzen ginenean
ere.

&&&

Zenbat itzal daramatzagun bekokian:

senideenak, lagunenak, animalienak, gauzakienak,
denak hilak orain,
baina ez gure bihotzean.

&&&

Hitzak nonahitik
hel daitezke;
baina kale-kantoi baten bueltan
suertatu zaizkigunak
beti ditugu
akorduan hartzekuak.

&&&

Argizariari putz,
belusak-eta korritu,
ate-leihoak hesitu.
Banoa betiko.
Kitto!

&&&

Ene arima
galduan barna
sartzera
ez dakit
ba
ausartuko zeran...

&&&

Egun luzeak [joan zaizkit]
ezer idatzi gabe.
Badirudi urteak igaro direla
“egun” hartatik aurrera.
Tonua galdu dut.
Nire barne-ahotsak
urrats bat
edo bi
egin du behera/atzera.
Baina hemen da berriro...
Bai, bera da,
nire betiko barne-ahotsa
da.
“Ongi etorri”, xuxurlatu dit/diot.

&&&

Musikariek erraza dute,

aski dute-eta musika jotzea
“zuloa” tapatzeko.
Baina besteok
 nola egin behar dugu,
 musikariok ez garenok,
emozio-oldarraldi horiek
 sortzeko gai ez garenok...?

&&&

“Nitaz gainezka nago”,
ez dakit zer esan nahi dudan...
baina badakit hori horrela dela,
eta “hitzez gainezka nagoela...”

&&&

Mundu honetan
bizirik irautea
 ez da erraza
baina are zailagoa da
 geure baitan/geure buruan
 bizirik irautea.

&&&

Mundu honetatik
onik irtetea
 ez da erraza
baina are zailagoa da
 geure baitatik/geure burutik
 onik irtetea.

&&&

Luzaro ibili behar da
egia bakunarekin
 topo egiteko:
bidea laburra bada,
 birritan ona.

&&&

Nire BDSM begirada
Nire Bondage sentimendua
Nire Clothespin arima
Nire Clamp barren-huts eta arina
Nire Nude eta Tit Tied desira,
Nire Bandage eta Gag jakinmina
Nire Sado gezurrezko egiak

Nire Pussy mortifikatuen samina
Nire gizakitasuna
 adreiluz adreilu
 deseraikia...

Nor naiz,
 nor nintzen,
 nor naiz izango?

&&&

Egunen bueltan,
 Jontxu,
 egunen bueltan...

&&&

“Kontuz: galaxien arteko
talka ekidinezina.
Mantsotu abiadura”.

&&&

Gelditu beharra dago,
konpontzeko geneukana konpondu
 eta aurrera jarraitu
 baino lehen,
 garrantzitsua baita
engranaje osoa
 ongi koipeztatuta
 edukitzea.

&&&

Behin, gurutzabide
 batera heldu nintzen.
Banekien bide-seinale guztiak
 nahita oker jarrita zeudela.
Bertan eseri nintzen,
 hartu beharreko
 norabideari buruz
 gogoetatzeko.
Oraindik
 bertan eserita
 jarraitzen dut.

&&&

Bizitzan
 desafinatu egiten dugunean
 mundu guztiaren

arreta
gureganatzen dugu.

&&&

Vivaron jarri beharreko gortinen krokisa
(edo altxorraren mapa ere esaten zaiona):
[krokis bat, zuk nahi duzuna]

&&&

Hainbeste desiratu dut,
desira-makina erre egin zaidan.
“Hobe,
 lasaiago biziko haiz
 orain”,
esan dit barne-ahots batek.

&&&

Korapiloak berez
 desegiten dira.
Eta desegiten ez direnak...
 heriotzak suntsitzen ditu,
 berez.

&&&

Neguko
 gau
 ederra,
 bai horixe!

&&&

Guztia dario
 aztarnarik uzten
 ez duen
nonbaiterantz.

&&&

Ito
 egiten
 naiz
 urik gabeko
 itsaso
 batean.

&&&

Nire inguruan
den-dena
da
larteria hutsa.

...

Bai,
larteriazko
itsaso bat...

&&&

Egunen batean
hitz bat idatzi
nahi izango dut,
baina bat ere
geratzen ez zaidala
ikusiko dut
ikaraz.
Egunen batean,
ai...

&&&

Juxtu
hobekien
pasatzen ari ginenean,
etxera itzuli behar.
“Ez zegok eskubiderik”
marmatu nuen haserre,
poesia-kaiera itxiz
eta atzeko konpartimenduan
gordez.

&&&

Okerrena da
euli bat
—gizaki bat—
zure inguruan bueltaka
hasten denean...

&&&

Funtsean,
ez dut ezer nahi
ez dut ezer behar.
Galdetuko balidate

arnasartzen jarritu nahi dudan
ez nuke jakingo
zer erantzun,
beharrezkoa ote zen
erantzutea.

&&&

Bizitza baten amaieran
beti geratzen dira
hiru puntu
eta jarrai:
horra ziurtasun bakarra!

&&&

Sumatzen dut
nigan badirauela
bizirik
nire gaztaroko
zerbaitek.

Ez dakit zer den.
Ez dakit zergatik.
Ez dakit ona
ala txarra
den.

Baina iraun,
badirau!

&&&

“Basoaren espiritua”.
Neure buruari galde
egiten diot
“basoaren espiritu” horren
eragina
non den

—inon bada—.

Eta ez dut zalantzarik
lurrean garen izaki guztiok
—salbuespenik gabe—
eragin horren pean bizi garela.

.....

Eta eragin horretatik
zenbat eta gehiago
urrundu nahi,
orduan eta zoritxarrekoago,
orduan eta patetikoago

bilakatzen garela.

&&&

Untxitxoak bezalakoak gaituk:
munduko beldurtirik
ausartenak,
adoretsuenak.

&&&

Nire hil-orduan,
erresistentziarako
ene bokazio latza
erakustea
espero dut.

&&&

Munduan badaude
bi hitz
egiatasuna
ezin hobeto
azaltzen dutenak:
“hasiera”
eta
“bukaera”.
Aurkariak
berdintzen dituzten
bi mutur.

&&&

Gidatzen ari zela
doministiku egin eta,
autoaren kontrola
galdurik,
istripu zinez latza
gertatu zitzaion,
han galdu baitzuen
bere familia osoa:
emaztea eta bi ttikiak.

Hartaz geroztik,
doministiku egiten zuen bakoitzean,
aurpegia kolpatzen zuen hormaren kontra
larriki zauritzeraino, eta ondorioz,
psikiatriko batean
sartu behar izan zuten,
zaintzapean,
non egon baitzen ingresaturik

azken hatsa eman arte.
“Doministiku batengatik”.

Horra hor futilitatearen indarra,
erabakigarritasuna.

&&&

Bazegoen garabi bat
abandonatuta
paraje abandonatu
batean.
“X” jauna han jarri zen bizitzen,
garabiaren puntan,
etxola moduko bat
osatzen zuen lekuan,
eta hain bizitza diskretua egiten zuen,
inor ez baitzen haren presentziaz ohartu,
ezta garabia botatzera etorritako
dinamiteroak ere.

&&&

Europa “definituta” dago.
“Definizioaren” lurraldea da.
“Indefinizioa” aspalditik dago
debehatuta bertan.
Definizioaren ordena
geratzen da, ordea;
hori,
eta ordenaren
definizioa.

&&&

Bi kontraesan,
ez dut besterik behar
bizitza korapilatzeke.
Kontraesanak, oro har,
bi izaten dira
—gehiago izan badaitezke ere—;
baina, orokorrean,
birekin
nahikoa
izaten
da.

&&&

Etorriko da
 egun bat
gu guztiok
 errotik aterako gaituena
eta harrotasunez atzerantz
 begiratzeko aukera
 emango diguna.
Lipar bat baino
 ez da
 izango,
kontzientzia
 betiko
 galdu aintzinean.

&&&

Txakurtxo bat
bere pilotatxoarekin
 jolasean...
Horra hor
 zorionaren
 irudikapen
 perfektua.

&&&

Ez da erraza
 giza harremanak
 eraikitzea,
baina are gaitzagoa da
 horiek deseraikitzea
(galdetu, bestela, dibortziatei
 —eta barkatu adibidearen
 arruntkeriagatik—).

&&&

Guztion barruan
 zizare bat daramagu
presarik ez duena
baina jakin badakiena
egunen batean
 gurekin
 bapo
 jarriko dela.
Poema honi
 “oturuntza handia”
izena
 eman ahal izango
genioke.

&&&

Gorroto dut
eguzkia,
ni itzalean
ederki bizi naiz
eta.

&&&

Oso zaila da
“onartzea”
(kristau-asmorik gabe
esanda).

&&&

“Basoaren espiritua”
nabaritzen ez duena,
“zaldien ahalmena”
baino hautematen ez duena.
Giza inozokeriaren beste
“perla” eder bat.

&&&

Gure bizitzak
kaleidoskopioak dira
non liluratzen garen,
eta galdu.

&&&

Poliki ari gaituk,
poliki,
inorako
labirintoan
barna.

&&&

Horrelakoak dira
gure bizitzan
gurutzatzen diren
bideak.
Zeinen estrainoak,
zeinen arrotzak
eta ulergaitzak!
Aterako ahal da hortik

argi-izpiño bat
sikiera!
Bai estrainoak
eta
arrotzak
besteengana
daramaten
bideak...

&&&

Erlojuak
erakusten digun
ordua
inoiz
ez
dakigu
noraino den
faltsua...

&&&

Betiko galerek
sortzen dizkiguten
penen esklabu
gera.

&&&

“Pozak hanka-motz,
tristurak hanka-luze”,
horrekin bat datoz
eskarmetudunak.

&&&

“Idilikotasuna”
bilatzen dugu...
dortokak 100 metroko
lasterketaren marka haustea
bilatzen duen
konbentzimendu berberaz.

&&&

Gaur eta orain,
atzo eta gero:
infrentzuaren
lau aldeak.

&&&

Behin gazte bat ikusi nuen
Orioko barran eserita
kaiera batean idazten.
Haren ondotik pasatzean
hitz batzuk esan nizkion
euskaraz.
Besteak ulertu ez
eta errepikatu nion
erdaraz: “Qué, ¿pican? ¿pican?”
Barre egin zuen,
jostaturik.

&&&

Hilko naiz
azken burutazioa
paper batean jasota
uzten saiatuz.
Badakit
horrela
izango dela.

&&&

Nola gustatuko zitzaigun
zenbaitetan denboran
atzera egitea,
eta nola gustatuko zitzaigun
zenbaitetan denboran
atzerantz bidaiatzeko
makinari
su ematea.

&&&

Esadazu zer ez duzun
eta esango dizut
zer behar duzun:
esadazu zer duzun
eta esango dizut
zer mesprezatzen duzun.

&&&

Zauri bat irekita
daukat
etengabe,
eta etengabe

ere
odoljariotzen naiz
hortxetik.
Batzuetan,
zauri barrura
begiratzen dut
eta zorabioak harrapatzen
nau,
hain da sakona!
Hondorik gabeko
putzu baten
modukoa...

&&&

Denak bezalakoa naiz:
niri ere ematen dit beldurra
kale gorrian geratzeak.

&&&

Ze faena,
atertzen hasi duela
dirudi...
Nire hitz-jarioa ere
ez badu atertzen orain...

&&&

Nerabezaroan
bultzatzen ninduen
indar beltz hark berak
bultzatzen nau
gaur egun ere.
Oraindik ezin dut ulertu
nola arraio lortu dudan
52 urtez indar horretatik
bizirik irtetea
("onik irtetea" esatera nindoan,
baina hori gehiegi esatea
izango litzateke, ezta?).

&&&

Baina,
zer ostia erreketete-puta ote da
ama-hizkuntza-puta-oxtixe bat?

(Oro har, etsaiei gauzak erraztea gogoko izaten dut...)

&&&

Orduan,
ispiluaren aurrean jarrita,
hartan islaturik
ikusten nuen
zer hari
galdetu nion:
“Baina, orduan,
zer nahi dek
nitaz?”
Aurpegian zirriborratutako
barre zikin bezain
ziniko batez
erantzun zidan.

&&&

“Zer biltzen dugu
geure bizitzetan
geure bizitzetarako?”
...

“Zer biltzen dugu
geure bizitzetan
geure bizitzetarako?”
...

Ez naiz inoiz
gauza bera esateaz
galdera bera egiteaz
nekatuko.

“Zer biltzen dugu...?”

&&&

Haize-orratza
ezer gutxi litzateke
haizerik, airerik
gabe.
Azken finean,
orratz bat
baino
ez litzateke
izango.
Helbururik gabeko,
mugimendurik gabeko,
zentsurik gabeko

tresna alfer bat
baino
ez litzateke izango,
azken finean.

&&&

Poeta bikainak ditugu:

***, ***...

Larrosa bat
inbidiaz
more
jartzeko
gai direnak.

&&&

Goi-une guztien
unerik gorenean,
iristear zela denok uste
genuenean...
dzast!
Ezer ez, ezertxo ere ez.

&&&

Zuhaitz bakoitza,
udazkenean,
burmuin baten
erradiografia
da,
zeruaren aurka
kontrastatua.

&&&

Grina bat
etxean sortzen zaigunean,
orduan hasten gara
beste etxea
—benetakoa—
eraisten.

&&&

Koloreen munduak
ez du
mugarik,
eta izango balu,
geure begietan

baino ez.

&&&

Lurra

arrotz
bilakatzen
zaigunean,
zahartu garelako
seinale.

&&&

Hor kanpoan

jada
paisaiarik
ez dagoenean,
zertarako
nahi duzu
lehiotik
begiratzen
jarraitu...?

&&&

Indiferentziak...

zer ondo
ebakitzen duen;
xerra fin-finak
egiten ditu
gurekin.
“Oi, koittadue!”,
hasi zen oihuka,
barrez,
pelikano bat.

&&&

Batzuetan,

zera pentsatu
ohi
dut:
hobe inor
—inor ere—
ezagutu izan ez
banu.

&&&

Mundua harri bat da,

norbaitek burura jaurti
 digun
 harri bat.

Beraz,
mundua harrikada bat dela
 [esan daiteke].

&&&

Bizitzaz dakidan guztia
ez dakidan guztia
 da.

&&&

Gustatzen zait
nire kobazuloaren barruan
 egotea
kanpora begira
kanpotik helduko denaren zain
—ezer iritsiko ez dela
 ziur-ziur egon arren—.

&&&

“Mundua biraka badabil,
zerbaitengatik izango da”.
Jakituria horrekin bizitzen dena
ezin garai honetarakoa
 izan.

“Beti ikasten da zerbait”,
tematzen da, hala ere,
gizaki baikorra...

&&&

Ni nago poesia ez ote den
tresnarik egokiena
absurdua zer den
 ezin azaltzeko.

&&&

Bi gortina-mota daude:
batetik,
barrutik kanpora
ikustea uzten dutenak
baina kanpotik barrura
ikustea uzten ez dutenak
—barruan argi bat piztu ezik—;

eta bestetik,
gortina opakua daude
barrutik kanpora
zein
kanpotik barrura
ikustea uzten ez dutenak
—barruan argi bat piztuta ere—.
Esatera nindoan
gustu-kontua dela,
baina bizitzaz are garenez
—eta ez gortina batzuez—,
nahiago dut horrelakorik ez esatea.
Bestela, pentsatuko zenuten, akaso,
azal-huts bat
naizela...

&&&

Une jakin batean
galduta zaudela
ohartzen zara:
esan nahi ez zenituen gauzak
esaten dituzula,
esan nahi zenituen gauzak
esaten ez dituzula...

&&&

Urteak joan-urteak etorri
“azalgaitz” bilakatu ginen.
“Txo arraro bat”
esaten zaiona,
alegia.

&&&

Gaua zen eta nigandik
urrun zegoen. Urrats oso
laburrak eginez ibiltzen zen,
sastrakadi batean, espaloitik gertu.
Hildako bat zen,
eta noizean behin
gelditu egiten zen
eta aprobeztatzen zuen
atzera begiratzeko.
.....

Uste dut autobusaren zain
[zegoela]
—edo hori uste zuen berak—.

Baina hilda zegoen,
argi eta garbi.

&&&

Munduak

bere irriñoa
galdurik zeukan.
Sentimendu huts,
horixka batek
barrutik
higatu egiten gintuen.

Izadia

pintore kaxkar baten
bodegoia
zen.
Zahartzen hasita sentitu ginen.
“Eta orain, zer?”
pentsatu genuen...

&&&

Esperantza guztiak

mila puskatan

eginda neuzkan.

Zeruertzean,

juxtu une hartan,

kometa eder bat agertu zen,

txikia eta gorria.

Horrek den-dena konpondu zuen.

&&&

Barbariearen erdi-erdian,

ardo-kopako uzkinak

lamikatzen zituen

etengabe

etengabe

etengabe...

(Haurren korua: Oi, etengabe!)

Oi, etengabe!)

&&&

Esateko ezer ez daukaten

poetekin gero eta antz

handiagoa daukat.

Nire bukaera ote...?

&&&

Hotza...

txirotasunaren

anaia txikia.

Baina anaia gehiago ditu:

gosea, gerra, gaixotasuna, indarkeria,
umiliazioa, beldurra...

Bai, Hotzaren familia

familia ugari

horietako

bat

da.

&&&

Emakumeak gustatzen zaizkit

baina ez dakit

emakumeei gustatzen natzaien.

Finean, gustu-kontua da...

&&&

Ondo ulertzen ez duguna

izendatzeko, orokortasunei

luzatzen diegu eskua.

“ $2 + 2 = 22$ ”. Horra nire ikuspuntua.

&&&

Zahartuz goazen neurrian

bizitzako ganbarara igotzen dugu

soberan daukagun guztia

(gehien-gehiena)... Halako batean,

duda sartzen zaigu: azalezkoa zirudiena

ez ote zen zinez mamitsuena...?

ala, alderantziz ote zen...?

&&&

Bart gauean balkoira atera nintzen,

eta Ilargira begira nengoela,

ustekabeen hamaika puskatan

apurtu zen nire begien aurrean.

Ozta-ozta izan nuen

“ni ez naiz izan” oihukatzekeo

denbora. Leihoa azkar-azkar itxi,

logelan sartu eta armairuko

ispilu handia ikusi nuen zoruan,

hamaika puskatan

apurtuta.

&&&

Beitu,
hiria hor dago,
niretzat
beti izan da
hirugarren dimentsioa
bezalako zerbait.
Ikusten dut,
bai,
baina
bertara daraman bidea
ez dut inoiz eskura izan.
Erraza dirudi,
eskua luzatzea
nahikoa balitz bezala
berau ukitzeko.
Baina niretzat
beti
izan da
hirugarren dimentsioa
bezalako zerbait:
fikzioa,
kimera
huts.

&&&

Santa Klaus bat
zihoan kaletik,
lasai, irribarretsu;
halako batean,
pistola bat atera
eta tiroka hasi zen
sekurata batzuen aurka,
haisetako bat seko hilda
eta beste bat larriki zaurituta
utziz. Gero, diruarekin
ihes egin zuen.
Gau hartan, hiriko haur guztiek
amesgaiztoak
izan zituzten.

(Haurren korua: Ai, amesgaiztoak izan zituzten!

Bis)

&&&

Zahartuz noa.
Dena hasi da
deskonposatzen
nire inguruan.
Ni neu, kasu.

&&&

Afro, asiar, europar zantzuak
zituen arraza nahastuko
gizaseme bat
hurbildu zitzaidan.
Nik lizunkeria, giza erailketa
eta zitalkeria irakurri nizkion
begietan.
Mantso-mantso,
jarraitu egin nion.

&&&

Amerikara zihoan itsasontzia
galdu nuen orain dela urte
[asko.]
Gauza batzuetarako,
aukera bakarra dago
(hori ere neure haragian bertan
ikasiaz dut).

&&&

Prostitutari
ordaindu egin nion.
“Ikusiko haut berriro?”
galdegin zidan samur.
Une hartan, bezero berri bat
sartu zen atletik eta
harengana jo zuen bizkor.
Ez zidan erantzuteko
betarik eman.

&&&

Mahai baten inguruan
hiru gizon zeuden eserita,
prostibuloan sartzen ziren
bezeroen lepotik barrez
eta euren artean apostuak
egiten: “Ezetz
logelan 7 minutu baino gehiago
[iraun”.]

Beherantz kalkulaten zuenak
ia beti asmatzen zuen.

&&&

“Kostatu zaik korritzea”
esan zion prostituta gazteak.
Gero, logelatik atera zirenean,
banandu egin ziren.
Bezeroa barran geratu zen
garagardo bat hartzen.
Prostibulotik atera zenean,
ondoko tabernan sartu zen
beste zerbait hartzeko.
Han prostituta ikusi zuen
itxura txarreko txo batekin
eserita, mahai batean.
Argitan neska nahiko gaztea zela
ohartu zen.
Afaltzen ari zen.
Haren inguruan
dena zen desolazioa.
Egun hartaz geroztik,
desolazio hark
bezero hari
beti
jarraitu zion...
leku guztietara.

&&&

Esperientzia berriak
bizi behar zituela
esaten zion bere buruari
behin eta berriro
behin eta berriro.
Baina ez zen ausartzen
gezurrezko urrats hura
ematera.

&&&

Momia bilakatu garela
iradokitzen diguten zantzuak
gero eta gehiago dira
(Haurren korua: “gero eta gehiago dira”
“gero eta gehiago dira”).

&&&

aspaldian...

Nik

neure bitza osoan

liburu bat baino

ez dut idatzi,

liburu bakarra alegia,

eta liburu horren izena

–onerako zein txarrerako–

“Marjinalia Bilduma”

da.